



1. Sarrera

Espainiako bederatzia unibertsitateak (UAM, UCM, UAB, USC, UV, UC, UPV/EHU, UZ eta UIMP) beren balibideak elkartu dituzte, unibertsitate arteko master bat eskaintzeko, hain zuzen, **Historia Garaikidean espezializazio akademikora eta ikertzaile** bideratua.

Ikasleak programa eskaintzen duten unibertsitateetako batean matrikulatuko dira, baina masterra **unibertsitate arteko**enez, hautazko kredituen zati bat beste unibertsitate batzuetan ikas daiteke.

Masterra **jardunaldi osoan** (hamabi hilabete; hala ere, bederatzia hilabete eskainiko da aurrez aurreko irakaskuntza, hau da, urritik ekainera) edo **partzialean** (hogeita lau hilabete) egin daiteke.

Master horrek **unibertsitate arteko doktorego-programa** baterako sarbidea ematen du; hain zuzen ere, doktorego-programa horrek Hezkuntza Ministerioaren **Bikaintasuneranzko Aipamena** jaso du. programa horrek Hezkuntza Ministerioaren **Bikaintasuneranzko Aipamena** jaso du.

2. Masterraren helburuak

Prestakuntza-programa honen helburua **historialari garaikideen eskola** bat sortzea da, eta eskola horretan historian ikerketa-lanak egin ahal izateko beharrezkoak diren ezagutzak eta teknikak lortzea, bai historialari profesionala gisa, bai beste arlo profesional batzuetako aditu gisa, hala nola kazetaritza, museistika, kultur animazioa, irakaskuntza, edizioa, dokumentazioa, azterketa soziala eta politikoa, eta abar.

Halaber, **gizarte-zientzietako beste titulu batzuei balioa gehi** diezaieke historia garaikidearen arloan prestakuntza-osagarri bat eta espezializazio bat eskainiz.

3. Masterraren egitura orokorra

Masterrak bi zati ditu:

• **Prestakuntza teorikoa:** bi moduluk osatzen dute:

- **Baterako eta nahitaezko irakaskuntzen modulua:** lehenengo zatia historia garaikidearen arloan ikerketaren alderdi orokorreko buruzko **sareko irakaskuntzan** datza, eta, bigarren zatia, berriz, **hitzaldi-ziklo** batek osatzen du; horiek UIMP unibertsitatean (Santander) egingo dira.

- **Hautazko modulua:** ikasleak **30 ECTS** kreditu bete beharko ditu unibertsitate guztiek eskainitako ikastaroetan; gutxienez, 15 ECTS kreditu egin beharko ditu espezializatzea erabaki duen arloan, eta gainerako 15 ECTS kredituak beste arlo batzuetako edo arlo bereko ikastaroetan egin ditzake.

• **Prestakuntza praktikoa:** ikerketan hasteko modulu batean datza; modulu horretan, lan bat egingo da, eta lan horretan ikerketa-lan bat planteatuko da. Ikerlan horretan, aukeratutako gaiari buruzko aztergaiaren egoera, gaia garatzeko erabiliko diren iturriak eta gaiaren hurbilketa analitikoak zehaztuko dira.

Honako hau izango da ikasketa-planaren egitura:

| | | |
|--------------|--|-------------------------------------|
| I. modulua | Ikerketa-lerroak | (10 kreditu) nahitaezkoa |
| | Sareko irakaskuntza (<i>online</i>) | 5 kreditu |
| | Hitzaldi-zikloa (UIMP) | 5 kreditu |
| II. modulua | Historia Garaikidearen arloko gaiak | (30 kreditu eta 6 gai) hautazkoa |
| | I. gaia Estatua eta espazio publikoa | 13 ikastaro UAMk koordinatua |
| | II. gaia Identitateak, nazioa eta nazionalismoak | 10 ikastaro UABk koordinatua |
| | III. gaia Landa-gizarteak, hiri-gizarteak | 14 ikastaro USCk koordinatua |
| | IV. gaia Historia kulturala eta kultura politikoaren historia | 24 ikastaro UVK koordinatua |
| | V. gaia Nazioarteko harremanen historia | 17 ikastaro UCMk koordinatua |
| | VI. gaia Gizarte-aldaketa eta ekonomia-eraldaketak | 14 ikastaro UPV/EHUk koordinatua |
| | VII. gaia Historiografia eta memoriaren politikak | 12 ikastaro UZk koordinatua |
| III. modulua | Master Amaierako Lana | (20 kreditu) nahitaezkoa |

4. Masterreko irakasleak

Masterrean parte hartzen duten unibertsitateetako **100 irakasle** baino gehiagok irakasten dituzte masterreko irakasgaiak. UIMPn egiten den hitzaldi-zikloa masterrean parte hartzen ez duten **Espainiako eta atzerriko beste zentro batzuetako historialariek** eskaintzen dute.

5. Masterrean sartzeko baldintzak

Masterrean sartzeko, nahitaezkoa da **lizentzia-duna edo graduduna** izatea Historian, Geografia eta Historian edo Filosofia eta Letretan (Historiako zenbait espezialitatetan). Hala ere, Giza Zientzietako edo Gizarte Zientzietako beste zenbait titulu eginda ere sar daiteke.

Atzerriko goi-mailako hezkuntza-titulu (grdua, lizentzia edo parekoa) bat duten ikasleek masterrean sartu ahal izango dute; betiere, titulu hori masterrean sartzeko gaitzen duen Espainiako tituluarekin homologatzen badute alde aurretik. Unibertsitateek tituludunak onartu ahal izango dituzte atzerriko hezkuntza-sistemen arabera haien tituluak homologatzeko beharrik gabe; baldin eta alde aurretik egiaztatzen badute titulu horiek Espainiako lizentzia/graduak tituluen pareko prestakuntza-maila egiaztatzen dutela eta tituluaren jatorrizko herrialdean graduondoko ikasketetara sartzeko gaitzen dutela.

Masterraren kostua autonomia erkidegoek ezarritako matrikula-tasa ofizialek zehaztuko dute. Tasa horien barne egongo da Santanderreko UIMPko hitzaldi-zikloaren matrikula. Zikloan parte hartzeko ahal bezain mantenu- eta ostatu-beka gehien lortzeko ahalegina egingo da; ikasle guztientzako beka lortzen ez badira, UIMPren ohiko irizpideen arabera esleituko dira.

6. Masterra egiteko beka eta laguntzak

Hezkuntza Ministerioak urtero hainbat laguntzatarako deialdia egiten du, masterreko ikasleentzako laguntzarako. Laguntza horiek lortzeko eskaera irailan aurkeztu beharko da, masterraren matrikula formalizatzen den garai berean, hain zuzen. Deialdiari buruzko datuak egiaztatzea gomendatzen da; web orrialdean ikus daitezke.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat bekaren deialdia egiten du urtero, unibertsitate-ikasketak egiteko, hala nola masterreko ikasketak. Deialdi hori ekainean edo uztailan argitaratu ohi da, eta eskaerak irailaren amaieran aurkezten dira.

Deialdiari buruzko datuak egiaztatzea gomendatzen da; web orrialdean ikus daitezke.

7. Masterrean aurretiko izen-ematea eta matrikula egiteko datak

UPV/EHU ikasturterako ikasleak onartzeko eskaera (aurretiko izen-ematea) martxotik maiatzaren bitartean egingo da. Plaza hutsak geratuz gero, eskaera berriak onartuko dira; hortaz, interesatuta dauden ikasleak Masterreko Idazkaritzarekin jarri beharko dira harremanetan.

Matrikula irailan egingo da.

Unibertsitate bakoitzak bere egutegia ezarriko du aurretiko izen-ematea eta matrikula egiteko.

8. Masterreko ikastaroak emateko lekua eta ordutegiak

Masterreko ikastaroak emateko ordutegiak eta lekua zein diren jakiteko, masterra ematen duten sailen web orriak eta masterraren web orri nagusia kontsultatu beharko dira: <http://www.uam.es/departamentos/filoyletras/hcontemp/posgrado/presentacion.htm>

9. Masterrean parte hartzen duten unibertsitateak

Madrilgo Unibertsitate Autonomoa (UAM)
Madrilgo Unibertsitate Complutense (UCM)
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa (UAB)
Santiagoko Unibertsitatea (USC)
Valentziako Unibertsitatea (UV)
Kantabriako Unibertsitatea (UC)
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Zaragozako Unibertsitatea (UZ)
Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatea (UIMP)

10. Harremanetarako helbideak

Masterraren web orria UPV/EHU:

<http://www.masterhistoriacontemporanea.ehu.es/p104-1999/eu>

Masterraren web orri nagusia:

<http://www.uam.es/departamentos/filoyletras/hcontemp/posgrado/presentacion.htm>

11. UPV/EHU eskaintzen diren hautazko irakasgaiak

Generoak gizarte-ulermenari eginiko ekarpena.

Aldaketa eta gizarte- eta nortasun-ondorioak (1875-1923).

Demografia historikoa.

Hiriaren garapena eta gizarte-aldaketa.

Diplomazia, gerra eta bakea XX. mendean.

XIX. eta XX. mendeetako Espainiako gizartearen eboluzioa.

Historia aktoreen ikuspuntutik.

Euskal nazionalismoa ikuspegi konparatuan.

Erligioa eta gizarte mundu garaikidean.

Gizarte-teoria eta -aldaketa.



Master en Historia Contemporánea

► Doctorado con Mención de Calidad





1. Introducción

Nueve de las principales universidades españolas (UAM, UCM, UAB, USC, UV, UC, UPV/EHU, UZ y UIMP) han unido sus recursos para ofrecer un Master interuniversitario, orientado a la **especialización académica e investigadora en Historia Contemporánea**.

Los estudiantes se matriculan en una de las universidades que oferta el programa, pero dado su **carácter interuniversitario**, puede cursar una parte de los créditos optativos en las otras universidades.

El master puede ser cursado a **tiempo completo** (en doce meses, aunque únicamente nueve de docencia presencial – octubre a junio) o a **tiempo parcial** (en veinticuatro meses).

Este Master da acceso a un **Programa de Doctorado interuniversitario**, que ha recibido la **Mención hacia la Excelencia** que otorga el Ministerio de Educación.

2. Objetivos del Master

El objetivo de este programa formativo es crear una **escuela de historiadores contemporaneístas**, en la que se adquieran los conocimientos y las técnicas necesarias para poder acometer trabajos de investigación en historia, bien sea como historiador profesional, bien como experto en otros campos profesionales como el periodismo, la museística, la animación cultural, la docencia, la edición, la documentación, el análisis social y político...

También puede servir para **añadir valor a otras titulaciones en ciencias sociales**, ofreciendo un complemento de formación y una especialización en historia contemporánea.

3. Estructura general del Master

El Master se estructura en dos partes:

• **Formación teórica:** está formado por dos módulos:

- **Módulo de enseñanzas comunes y obligatorias:** una primera parte consiste en las **enseñanzas en red** sobre aspectos generales de la investigación en historia contemporánea, y una segunda formada por un **ciclo de conferencias** en la UIMP (Santander).

- **Módulo optativo:** el estudiante tiene que cubrir **30 ECTS** con los diferentes cursos ofertados por todas las universidades, cursando al menos 15 ECTS en cursos de la materia en la que ha decidido especializarse, y pudiendo cursar los 15 ECTS restantes con cursos de otras materias o de la misma.

• **Formación práctica:** consiste en un **módulo de iniciación a la investigación**, en el que se elabora un ensayo en el que se plantea un trabajo de investigación en el que se detallan el estado de la cuestión sobre el tema elegido, las fuentes que se utilizarán para su desarrollo y una aproximación analítica al mismo.

La estructura del plan de estudios es la siguiente:

| | | |
|------------|--|-------------------------------------|
| Módulo I | Líneas de investigación | (10 créditos) obligatorio |
| | Enseñanzas en red (<i>on line</i>) | 5 créditos |
| | Ciclo de conferencias (UIMP) | 5 créditos |
| Módulo II | Temas de Historia Contemporánea | (30 créditos y 6 materias) optativo |
| | Materia I El Estado y el espacio público. | 13 cursos coordinado por la UAM |
| | Materia II Identidades, nación y nacionalismos | 10 cursos coordinado por la UAB |
| | Materia III Sociedades rurales, sociedades urbanas | 14 cursos coordinado por la USC |
| | Materia IV Historia cultural e historia de las culturas políticas | 24 cursos coordinado por la UV |
| | Materia V Historia de las relaciones internacionales | 17 cursos coordinado por la UCM |
| | Materia VI Cambio social y transformaciones económicas | 14 cursos coordinado por la UPV/EHU |
| | Materia VII Historiografía y políticas de la memoria | 12 cursos coordinado por la UZ |
| Módulo III | Trabajo Fin de Master | (20 créditos) obligatorio |

4. Profesorado del Master

El profesorado de los diferentes cursos del Master está formado por más de **100 docentes** de las universidades participantes. El ciclo de conferencias que se celebra en la UIMP lo imparten **historiadores de otros centros españoles y extranjeros** que no forman parte del Master.

5. Condiciones de acceso al Master

Para acceder al Master es condición necesaria ser **Licenciado o Graduado** en Historia, Geografía e Historia o Filosofía y Letras (en algunas de las especialidades de Historia). Aunque también es posible acceder tras haber cursado otros títulos de Humanidades o Ciencias Sociales.

Los estudiantes que estén en posesión de un **título de educación superior extranjero** (grado, licenciatura o equivalente) podrán acceder al Master previa homologación de aquél al título español que habilite para dicho acceso. Las universidades podrán admitir a titulados conforme a sistemas educativos extranjeros sin necesidad de la homologación de sus títulos, previa comprobación de que aquellos acreditan un nivel de formación equivalente a los correspondientes títulos españoles de Licenciado / Grado y que faculden en el país expedidor del título para el acceso a estudios de Posgrado.

El **coste del Master** vendrá determinado por las tasas oficiales de matrícula que dictan las diferentes comunidades autónomas. Dichas tasas incluyen la matrícula en el ciclo de conferencias de la UIMP en Santander. Se tratará de conseguir el máximo número de becas de manutención y alojamiento para asistir a ese ciclo; de no cubrir a la totalidad de los estudiantes, se adjudicarán de acuerdo con los criterios habituales de la UIMP.

6. Becas y ayudas para cursar el Master

El Ministerio de Educación, anualmente, convoca ayudas para favorecer la movilidad de estudiantes de master. La solicitud de estas ayudas se debe presentar en septiembre, en el mismo periodo que se formaliza la matrícula del Master.

Es conveniente comprobar los datos de la convocatoria en su página web.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, anualmente, convoca becas para cursar estudios universitarios, entre los que se incluyen los de Master. Esta convocatoria se suele publicar en los meses de junio o julio y las solicitudes se presentan antes de finales de septiembre.

Es conveniente comprobar los datos de la convocatoria en su página web.

7. Fechas de preinscripción y de matrícula del Master

La solicitud de admisión (preinscripción) en la UPV/EHU se realizará entre los meses de marzo y mayo. En el caso de que queden plazas vacantes se admitirán nuevas solicitudes, por lo que el alumnado interesado deberá contactar con la Secretaría del Master.

La matrícula se realizará en el mes de septiembre. Cada universidad establecerá su calendario de preinscripción y matrícula.

8. Lugar y horarios de los cursos del Master

Para conocer los horarios y lugares de impartición de los diferentes cursos del Master se deben consultar las páginas web de los departamentos que imparten el Master y la página web general del Master: <http://www.uam.es/departamentos/filoyletras/hcontemp/posgrado/presentacion.htm>

9. Universidades participantes en el Master

Universidad Autónoma de Madrid (UAM)
Universidad Complutense de Madrid (UCM)
Universidad Autónoma de Barcelona (UAB)
Universidad de Santiago de Compostela (USC)
Universidad de Valencia (UV)
Universidad de Cantabria (UC)
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Universidad de Zaragoza (UZ)
Universidad Internacional Menéndez y Pelayo (UIMP)

10. Direcciones de contacto

Página web del Master en la UPV/EHU:
<http://www.masterhistoriacontemporanea.ehu.es/p104-1999/es>
Página web general del Master:
<http://www.uam.es/departamentos/filoyletras/hcontemp/posgrado/presentacion.htm>

11. Asignaturas optativas que se ofertan en la UPV/EHU

La aportación del género a la comprensión social
El cambio y sus repercusiones sociales e identitarias (1875-1923).

Demografía histórica.

Desarrollo urbano y cambio social.

Diplomacia, guerra y paz en el siglo XX.

La evolución de la sociedad española de los siglos XIX y XX.

La Historia desde los actores.

El nacionalismo vasco en perspectiva comparada.

Religión y sociedad en el mundo contemporáneo.

Teoría social y cambio social.



Historia Garaikideko Masterra

► Doktoretza Kalitate-Aipamenarekin

